# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia | Iruña, 2008ko urriaren 10a | 87. ZK.

## A U R K I B I D E A

E SAILA:

**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan, hala eskatzen duten udalek udal zahar-etxeen kudeaketa publikoa berreskuratu ahal izan dezaten. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako zerbitzuaren proiektua berriro landu eta/edo birmolda dezan, halako moduz non azpiegitura berean bilduko diren Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjinako larrialdietarako zerbitzuak. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak detektatzeko eta modu egokian tratatzeko protokoloaren gaineko balantze bat igor dezan, Parlamentuan onetsitakoari jarraikiz. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduera politikoak abiaraz ditzan gaur egungo krisialdi ekonomikoari aurre egiteko, parametro batzuei jarraikiz. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Lege proiektu bat igor dezan, zeinean beharrezkoak diren xedapenak jasoko baitira, Lehendakaritza, Hezkuntza eta Gizarte Ongizateko departamentuen mendean lan egiten duten administrazioko osasun arloko diplomatu finko guztiak, 8/2008 Foru Legetik kanpo geratu zirenak, bertan sar daitezen. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espedientea has dezan Radio Universidad de Navarra eta Medios de Comunicación 21 enpresei irrati-hedapenaren zerbitzua kudeatzeko emandako administrazio-emakidak hutsaltzeko, lizentzia ematerakoan beren gain hartutako betekizun eta betebeharren ez-betetze larrien ondorioz. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritarrak artatzeko bulego orokor bat jar dezan Tuteran. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Vinsak sustatu edo kudeatzen dituen etxebizitzen alokairuaren prezioa eskatzailearen errenta-ahalmenaren arabera ezar dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bidezubi berri bat eraiki dezan Isoko mendatearen hegoaldean, gaur egun Orradre-Napaleko bidegurutzean dagoen zubiaren ordez. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan eta hausnarketa bat egin dezan eta Parlamentura igor dezan, hutsik dauden etxebizitza eraikiak babes ofizialeko etxebizitzen araudian sartzeari buruz. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak eta negoziazioak egin ditzan Audenasarekin, Imarkoaingo bidesari-postua tokiz aldatzeko eta N-121 errepideko bidegurutzetik gorago jartzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da material didaktiko osagarriaren doakotasuna berma dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
—Adierazpen instituzionala, Lan Duinaren aldeko Mundu Mailako Jardunaldiari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Julián Gayarre Nazioarteko Kantu Txapelketaren XXI. edizioaren bilakaeraren gainean duen iritziari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (18. or.).
—Galdera, Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Txapelketari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (19. or.).
—Galdera, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an "Net 21 Radio" eta "Radio Universidad de Navarra" irratiez eginiko txostenaren gaineko iritziari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (19. or.).
—Galdera, Nafarroako Gobernuak eskaintza berrietarako aurreikusten duen babes ofizialeko etxebizitza kopuruari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (20. or.).
—Galdera, oinarrizko errentak eta beste zenbait gizarte laguntzak Nafarroan duten egoerari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (20. or.).
—Galdera, Funes aldean Arga ibaira botatzen diren hondakinei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (21. or.).
—Galdera, hiri segurtasunerako udalez gaindiko lehen planak ukitutako udalerrien jarduera, baliabide, erantzun eta parte-hartzeari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (22. or.).
—Galdera, asegururik gabe ibiltzen diren ibilgailuek eragindako istripuei eta Foruzaingoak horiek kontrolatzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (22. or.).
—Galdera, Gobernuak hartu dituen edo hartuko dituen neurriei buruzkoa, Nafarroako Ikus-entzunezko Kontseiluak Net-21 eta Universidad de Navarra irratien funtzionamenduan atzemandako irregulartasunak direla eta, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (23. or.).
—Galdera, jakiteko zenbat enpresa sortu diren 2005, 2006 eta 2007. urteetan, zenbat lanpostu sortu diren, zein jarduera-sektoretan jarduten duten eta non dauden, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (24. or.).
—Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (25. or.).
—Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (26. or.).
—Galdera, Toki Administrazioko Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (27. or.).
—Galdera, Hezkuntza Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (28. or.).

—Galdera, Osasun Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (29. or.).
—Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (30. or.).
—Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (31. or.).
—Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (32. or.).
—Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (33. or.).
—Galdera, Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (34. or.).

**E saila:**
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan, hala eskatzen duten udalek udal zahar-etxeen kudeaketa publikoa berreskuratu ahal izan dezaten.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plan bat presta dezan, hala eskatzen duten udalek udal zahar-etxeen kudeaketa publikoa berreskuratu ahal izan dezaten.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gure gizartearen ardura handienetako bat bihurtu da hirugarren adinekoen laguntza; izan ere, familietan nahiz populazioaren piramidean gertatu diren aldaketen eraginez, hazi egin da sektore horretara bideratutako gizarte laguntza.

Halatan, botere publikoek erakutsi dute, menpekotasunaren legeaz eta beste arau-testu batzuez geroztik, zerbitzu hori herritarren oinarrizko eskubide gisa ulertu beharraren premia. Administrazio publikoek bermatu beharreko oinarrizko eskubidea, eskubide subjektibo gisa.

Hortaz, zahar-etxeetan gertatzen denaren erantzukizun publikoa, zerbitzuaren kalitatearena eta familien nahiz erabiltzaileen gogobetetasunarena, esparru publikoari dagokio inondik ere, eta hala onartzen da.

Horregatik, onartu beharra dago, gure ustez, ez dela guztiz egokia udal jabetzako zenbait zahar-etxeren kudeaketa pribatua, ez bakarrik erabiltzaile batzuen eta haien familien kexei erreparatuta, ezpada alderdi objektiboagoei erreparatuta, tarifen igoera edo espazio fisiko berean banakako gelak bikoitz bihurtzea kasu.

Udalik gehienek ez dute bitarteko ekonomikorik bere gain hartzeko, edo berreskuratzeko, zerbitzu txarreko udal zahar-etxeen kudeaketa, eta, hortaz, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak ahalegin ekonomikoa egitea udal jabetzako zahar-etxe horiek kudeaketa zuzenekoak izan daitezen, hartara hobetuko baita erabiltzaileen eta haien familien gogobetetasuna eta haiei emandako zerbitzuaren kalitatea.

Hori guztia dela-eta, hau erabakitzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, hiru hilabeteko epean plan bat egin dezan, halako moduz non hala eskatzen duten udalek udal zahar-etxeen kudeaketa publikoa berreskuratu ahalko duten, edo, bestela, laguntzak jaso ahalko dituzten kudeaketa berrikitan berreskuratu badute, Nafarroako Gobernuarekiko lankidetza itun baten bitartez, zeinean jasoko baitira kudeaketa publiko horrek eragiten dituen premia ekonomikoak.

Iruñean, 2008ko irailaren 26an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako zerbitzuaren proiektua berriro landu eta/edo birmolda dezan, halako moduz non azpiegitura berean bilduko diren Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjinako larrialdietarako zerbitzuak.

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako zerbitzuaren proiektua berriro landu eta/edo birmolda dezan, halako moduz non azpiegitura berean bilduko diren Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjinako larrialdietarako zerbitzuak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako zerbitzuaren proiektua birpentsa dezan eta/edo neurri berriak eman diezazkion, halako moduz non azpiegitura berean bilduko diren Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjinako larrialdietarako zerbitzuak.

Zioen azalpena

Bideko Ama Birjina Ospitaleko eta Nafarroako Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak hobetu beharra dago, zerbitzu horiek zenbait urtetik hona dituen gabeziak arintzeko.

Osasun kontseilariak behin baino gehiagotan iragarri du larrialdietako eraikin berriaren proiektua. Aurreikusita dago hain beharrezkoa den obra hori Nafarroako Ospitalearen eremuan eraikitzea eta 2010ean abian jartzea.

Larrialdietako erakin berri horrek Nafarroako Ospitaleko larrialdiak baino ez ditu hartuko, eta 20 milioi euroko kostua izanen duela aurreikusten da.

Une honetan azpiegitura-arazo bat dago zinez, eta eraikin berri horrek Nafarroako Ospitaleko tokigabezia konponduko du hein batean, baina ez du konponduko Bideko Ama Birjina Ospitaleko arazoa.

Zailtasun ekonomikoko une hauetan, Alderdi Sozialistaren irizpidea da baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzea eta ahalik eta modurik eraginkorrenean jardutea; hori dela eta, berraztertu egin beharko litzateke larrialdietako eraikin berri horren proiektua, halako moduz non azpiegitura bakar batean eman ahal izanen den bi ospitale horietako larrialdietako zerbitzua; hartara, batu eginen litzateke zerbitzua eta desagerrarazi eginen lirateke gaur egungo oztopo funtzional, fisiko eta antolakuntzakoak.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Ospitaleko larrialdietako zerbitzuaren proiektua birpentsa dezan eta/edo neurri berriak eman diezazkion, halako moduz non azpiegitura berean bilduko diren Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjinako larrialdietako zerbitzuak.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak detektatzeko eta modu egokian tratatzeko protokoloaren gaineko balantze bat igor dezan, Parlamentuan onetsitakoari jarraikiz.

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hezkuntza premia bereziak detektatzeko eta modu egokian tratatzeko protokoloaren gaineko balantze bat igor dezan, Parlamentuan onetsitakoari jarraikiz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Orain dela gutxi egin da Bartzelonan Europa mailako batzar bat, "Arreta-defizitak eta hiperaktibotasunak eragindako nahastearen Europako astea" izenekoa, zeinetan nabarmendu baitira nahaste hori dutenek eta haien familiek dituzten premiak.

Sintomak ezagunak dira: arretari eusteko zailtasuna, hiperaktibotasuna eta kontrolik eza bihozkadetan.

Gaixoen Unibertsitateko zuzendari akademiko Maria Dolors Navarro Rubio doktorearen ustez, gizartearen sentsibilizazioak markatuko du gaixotasunaren etorkizuna, hori izanen baita giltza eskola-porrotari eta gizarte-moldegabeziako balizko egoerei aurrea hartzean arrakasta izateko.

Kaltetuen nahiz haien senideen premiak ezagutzea izan da batzar horretako helburu nagusietako bat. Nafarroako Parlamentuan gai horri buruz eztabaidatzeko aukera izan dugu zenbaitetan, eta Nafarroako Gobernua premiatu dugu hezkuntza premia bereziak detektatu eta tratatzeko jarduketa protokoloa eguneratu dezan (2008ko maiatzaren 6ko Parlamentuko aldizkaria).

Erriberan hiperaktibotasuna duten gaixoen senideek –ANDAR elkartekoek– adierazi digute zein diren lehentasun geroraezinak; horietako bat, haur eta gazteentzako unitatea, espresuki eskatua diote Osasun Departamentuari, baina orain arte ez da ezer zehaztu.

Une honetan dagokiguna da jakitea zer urrats eman diren, bai eta aurrera egitea premiei behar bezala erantzuteko bitartekoetan.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean igor dezan Osasun, Hezkuntza eta Gizarte Gaietako departamentuen arteko jarduketa protokoloaren garapenaren balantzea, hala onetsi baitzuen Parlamentuak, gai horretako aurrerabidea ikusi ahal izateko eta kaltetuen elkarteei horren berri eman ahal izateko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2009ko aurrekontuetan kontu-sail berariazko bat onestera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleak izan ditzan neuropediatriako unitate bat, kasuko langile espezializatuekin, eta haur eta gazte zerbitzu bat, Erriberan zerbitzu ematen duen adimen osasuneko zentroaren menpekoa.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduera politikoak abiaraz ditzan gaur egungo krisialdi ekonomikoari aurre egiteko, parametro batzuei jarraikiz.

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren jarduera politikoak abiaraz ditzan gaur egungo krisialdi ekonomikoari aurre egiteko, parametro batzuei jarraikiz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Roberto Jiménez Allik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 185. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioa heldu da egoera ekonomikoaren gaineko iritziari eta jarduerari buruzko politika orokorreko jabeldura batetik, irailaren 25eko Osoko Bilkuran eztabaidatu baitzen.

Proposamenaren azalpena

Mozio hau aurreko ostegunean, hil honen 25ean, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran egindako eztabaidatik heldu da, parlamentu-talde honek aurkeztutako jabelduraren ondorioz.

Jabelduraren sarrera gisa adierazi genuen nazioarteko ekonomiaren bilakaerak eskaintzen dituela gobernuen, moneta-agintarien, enpresen, sindikatuen eta, oro har, iritzi publikoaren interesa hartzen duten datuak, eta konbentzituta gaudela zaila dela eskualde eta toki esparrutik bilakaera ekonomikoaren izaera orokor eta globalean eragitea, ihes egiten baitio gurea bezalako esparruetako agintari eta botere publikoen jarduketari. Jabelduran orobat nabarmendu genuen politika publikoen eta administrazioen eragin ahalmena oraindik ere kontuan hartzeko modukoa dela, haien esparruan, oparoaldietan nahiz garai zailetan.

Halatan adierazi genuen, eta orain ere errepikatu nahi dugu, Nafarroan, azken hamarkadetan, alor ezberdinetan (industria, zergak, herri lanak, azpiegitura orokorrak, garapen energetikoa, hezkuntza eta prestakuntza ) aurrera eraman diren politikek lagun egin diotela Foru Komunitateko garapen ekonomikoaren mailari. Europar Batasuneko erakundeetan sartu baino lehen eta sartu ostean, globalizatutako nazioarteko eszenatoki aldakor horren aurretik eta ondoren, eskualde eta estatu mailako politika publikoek ekarpen positiboa egin diote geure eskualdeko garapenari.

Horregatik, bada, nafar sozialistok uste dugu gure betebeharra dela, eta bereziki Nafarroako Gobernuarena, lasaitasunetik eta jarrera dinamiko eta aktibo batetik, egungo egoera ekonomikoaren dinamizazioa eta gorakada bideratzea, gure autogobernuaren ahalmenaren eskura dauden jarduketak taxutuz, eta Espainiako Gobernuak aurrera eramandako politika ekonomikoari lagunduz.

Beharrezkoa da gure autogobernuaren ahalmen guztia jartzea enpleguaren eta enpresa-lehiakortasuna hobetzearen zerbitzuan. Nafarroako enpresaburuek, ekintzaileek eta langileek jakin behar dute foru erkidegoko erakundeek dena emanen dutela gure ekonomia dinamizatzen laguntze aldera.

Jabeldura aurkeztu eta eztabaidatu genuenean adierazi genuen kaltegarriak direla hala planteamendu katastrofistak (izan ere, horien xedea da epe laburrera errentagarritasuna ateratzea alderdiarentzat edo hauteskundeei begira, gure ekonomiaren –nazionala nahiz gure eskualdekoa– segurtasuna eta sendotasuna ahulduz) nola alarmismotik egoerari probetxu atera nahi diotenena, langileei eskubide-maila jaisteko, gizarte babesa eta gastua murrizteko, edo neurri ultraliberalak eta nafar gehien-gehienok defenditzen dugun Europako ongizatearen estatua mantentzeko eta hobetzeko ezegokiak direnak sartzeko. Guk berriz eskatzen dugu ez dadila egin krisi ekonomikoaren erabilera alderdikoirik, egoerak agintzen duen moduan jokatu behar baitugu den-denok.

Egoera ekonomikoari Foru Komunitateko erakundeetatik egin behar zaio aurre, errealismoz eta perspektibaz, eta inolaz ere ezin da izan aitzakia bat gure zerbitzu publikoen eta gizarte ongizatearen mailak murrizteko. Gizarte-prestazioen murrizketa ezin da onartu Nafarroan egoera ekonomikoari aurre egiteko; besteak beste, gizarte ongizatearen sareak berme-sare gisa bere eginkizuna bete behar duelako hain zuzen ere krisialdi ekonomikoetan, eta, era berean, hamarkadaz hamarkada lortutako banakoen eskubide-multzoaren osagai delako.

Horretarako metodoa eta bidea dira gizarte-elkarrizketa eta adostasun politikoa sustatzea, zeharkako politika zenbait taxutuz, Nafarroarako garapen ekonomikoko eredu berriaren estrategia bat prestatu eta aldi berean ezarriko dutenak. Gizarte ongizate mailak mantentzearekin batera, beharrezkoak diren jarduketak lehenetsi behar dira, horrela ekoizpen inbertsioak, ikerkuntza, berrikuntza eta prestakuntza babestu eta enpleguaren sorrera sustatzeko. Ekimen eta jarduketa horiek, betiere, eragile ekonomikoen eta sozialen artean eztabaidatu eta adostu beharko dira.

Azkenik, uste dugu garrantzitsua eta ezinbestekoa ere badela Espainiako Gobernuarekin lankidetzan aritzea auzi honi dagokionez.

Foru Komunitateko jarduketak estatuak egindakoekin osatu behar dira, eta alderantziz. Politika ekonomikoari dagokionez tresnarik eraginkor eta efizienteenetarikoa aurrekontu-politika denez gero, komeni da adostasunik handiena bilatzea gure jardun- eta eragin-eremuko aurrekontu orokorretan, hau da, 2009ko Nafarroako aurrekontuetan eta Estatukoetan.

Mozioaren testua

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren jarduketa politikoak abiaraz ditzan gaur egungo krisialdi ekonomikoari aurre egiteko, ondoko parametroei jarraikiz:

– Gobernuaren jarduteko ahalmen guztia jartzea enpleguaren eta enpresa-lehiakortasuna hobetzearen zerbitzuan.

– Adostasun politikoa sustatzea.

– Mintzakidetza areagotzea eta eragile ekonomiko eta sozialekiko elkarrizketa sustatzea.

– Zeharkako politikak garatzea hezkuntzari eta prestakuntzari dagokienez, I+G+B, finantzaketa-tresnak, giza kapitala, azpiegiturak, produkzio eta zerbitzu sektoreen nazioarteratzea hobetzea, enpresa-kulturaren sustapena, fiskalitatearen eragina optimizatzea eta abar.

– Garapen ekonomikoko eredu berri bat taxutzea.

– Beharrezkoak diren adostasunak bilatzea eta horietan parte hartzea Nafarroako nahiz estatuko 2009ko aurrekontuak onesteko.

– Nafarroako gizarte ongizatearen sarea bermatzea, eta gizarte-murrizketak metodo gisa ekiditea. Espainiako Gobernuarekin lankidetzan aritzea politika ekonomikoari dagokionez.

– Ahal den neurrian leuntzea eta gutxitzea krisiak Foru Komunitatean dituen ondorioak, Nafarroako ekonomiaren berrabiada sustatuz.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Lege proiektu bat igor dezan, zeinean beharrezkoak diren xedapenak jasoko baitira, Lehendakaritza, Hezkuntza eta Gizarte Ongizateko departamentuen mendean lan egiten duten administrazioko osasun arloko diplomatu finko guztiak, 8/2008 Foru Legetik kanpo geratu zirenak, bertan sar daitezen.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Foru Lege proiektu bat igor dezan, zeinean beharrezkoak diren xedapenak jasoko baitira, Lehendakaritza, Hezkuntza eta Gizarte Ongizateko departamentuen mendean lan egiten duten administrazioko osasun arloko diplomatu finko guztiak, 8/2008 Foru Legetik kanpo geratu zirenak, bertan sar daitezen.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluaren eta hurrengoen babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Legebiltzarrak, 2008ko maiatzaren 22ko Osoko Bilkuran, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun langile diplomadunen lanbide karrerako sistema ezartzen duen Foru Lege proiektua onetsi zuen.

Parlamentu-talde honek hainbat zuzenketa aurkeztu zituen foru lege proiektu hori izapidetu zenean, ondokoa besteak beste: Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuetako, hala nola Lehendakaritza, Hezkuntza eta Gizarte Gaietako departamentuen menpeko osasun langile diplomadunak sartzea bertan; izan ere, gure ustez, ez da onargarria haiek, beste departamentu batzuei atxikita egoteagatik, ez izatea Osasun Departamentuan lan egiten dutenen eskubide berberak, lan baldintza berberak baitira.

Halere, lege proiektu hori onetsi zenean ez ziren aintzat hartu departamentu horien menpeko osasun langile diplomadunen eskariak. Eskari horiei ezetza eman zitzaienez, langile horiek arartekoari igorri zizkioten bere eskariak, eta hark arrazoia eman die eta Nafarroako Gobernua premiatu du Lanbide karrerari buruzko maiatzaren 30eko Foru Legea alda dezan.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lege proiektu bat igor dezan Parlamentura, zeinean beharrezkoak diren xedapenak jasoko diren, Lehendakaritza, Hezkuntza eta Gizarte Ongizateko departamentuen mendeko zentroetan lan egiten duten administrazioko osasun arloko langile diplomadun finko guztiak, 8/2008 Foru Legetik kanpo geratu zirenak, bertan sar daitezen.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramirez Erro

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espedientea has dezan Radio Universidad de Navarra eta Medios de Comunicación 21 enpresei irrati-hedapenaren zerbitzua kudeatzeko emandako administrazio-emakidak hutsaltzeko, lizentzia ematerakoan beren gain hartutako betekizun eta betebeharren ez-betetze larrien ondorioz.

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita espedientea has dezan Radio Universidad de Navarra eta Medios de Comunicación 21 enpresei irrati-hedapenaren zerbitzua kudeatzeko emandako administrazio-emakidak hutsaltzeko, lizentzia ematerakoan beren gain hartutako betekizun eta betebeharren ez-betetze larrien ondorioz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du:

Zioen azalpena

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 1140/2005 zenbakiko epaiaren bitartez, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren uztailaren 15eko 2343/1998 Foru Agindua deuseztatu zuen zuzenbidearen araberakoa ez izateagatik; foru agindu haren bitartez, irrati lizentzia bana esleitu zitzaien Universidad de Navarrari eta Medios de Comunicación 21 enpresari.

Epai hartan, administrazio espedientea atzera eragitea agindu zen, kontratazio mahaiak modu osoan eta zehatzean balora eta puntua zitzan lehiaketa publikoan aurkezturiko eskaintzak. Auzitegiak epai hartan bertan ezarri zuen ez zegoela apaiaren aurkako errekurtsoa jartzerik. Hortaz, epaia irmoa zen.

2006an, Nafarroako Gobernuak berriz esleitu zizkien Nafarroako Unibertsitateari eta Medios de Comunicación 21 enpresari Iruñeko bi irrati lizentziak.

Parlamentuan berrikitan eginiko agerraldian Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko lehendakariak adierazi duenez, esleipen horietako bat "ez da inondik ere egokitzen ez emakidaren baldintzei ez legediari ere... eta ez du baimenik, emititzen ari dena emititzeko", "irregulartasuna agerikoa da" eta "ez-betetze horiek konpontzea Nafarroako Gobernuari ez beste inori dagokio".

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du espedientea has dezan Radio Universidad de Navarra eta Medios de Comunicación 21 enpresei irrati-hedapenaren zerbitzua kudeatze aldera emandako administrazio-emakidak hutsaltzeko; izan ere, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak ez-betetze larriak detektatu eta Nafarroako Parlamentuan salatu ditu, lizentzia ematerakoan haiek beren gain hartutako betekizun eta betebeharrei dagokienez.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritarrak artatzeko bulego orokor bat jar dezan Tuteran.

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita herritarrak artatzeko bulego orokor bat jar dezan Tuteran.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritarrei zerbitzu emateko bulego orokor bat jar dezan Tuteran.

Zioen azalpena

Administrazio publikoen eginkizun etengabea izan behar du zerbitzu publikoak eskuratzeko eta horien politikak ezagutzeko erraztasunak ematea. Eginkizun horretan, munta handiko zeregina dute teknologia berriek eta foru administrazioaren, estatukoaren eta toki administrazioen arteko lankidetzak eta elkarlanak. Administrazioaren funtzionamenduaren modernizazioa eta kalitatea ezinbestean doaz lotuta herritarrenganako gertutasunari eta herritarrek administrazioaren zerbitzuak erraz eskuratu eta politikak ezagutu ahal izateari.

Hori guztia gorabehera, presentzia fisikoa funtsezkoa da oraindik ere, esate baterako Ogasun Departamentuaren bulegoetan. Iruñerriaren kasuan, nahiko erraza da foru gobernuaren departamentuetako administrazio-bulegoetara joatea, baina hori ez da eragozpen izan behar etorkizunean departamentuetako informazioa koordinatuko duen bulego bat sortzeko. Herrietan eta hiriburutik urrutien dauden hirietan, aldiz, erraztasuna zailtasun bihurtzen da.

Hurbiltasun eta gertutasun politika horretan aurrera egite aldera, egokia da proposatzea Tuteran herritarrak artatzeko bulego orokorra sor dadin, esperientzia pilotu gisa balio ahal izanen duena, ehun mila biztanleko eskualde bat artatzeaz gain, etorkizunean beste merindade batzuetan jarduteko jarraibideak ezartzeko.

Proposatzen dugun bulego orokor horrek, Nafarroako Gobernuaren erregistro orokorra hartzeaz gain –Erriberako hiriburuko Ogasunaren bulegoan izapidetzen diren agirien %70etik gora beste departamentu batzuetakoak dira–, foru gobernuaren politikei eta jarduketei buruzko informazioa eta aholkua jasotzeko balio ahal izanen du (beharrezkoa izanez gero, departamentu guztien administrazio-unitateen laguntza eskatu ahalko du).

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du herritarrei zerbitzu emateko bulego orokor bat jar eta abiaraz dezan Tuteran, zioen azalpenean azaldutako ezaugarriekin bat.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Vinsak sustatu edo kudeatzen dituen etxebizitzen alokairuaren prezioa eskatzailearen errenta-ahalmenaren arabera ezar dezan.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Vinsak sustatu edo kudeatzen dituen etxebizitzen alokairuaren prezioa eskatzailearen errenta-ahalmenaren arabera ezar dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluaren eta hurrengoen babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Etxebizitza bat izateko eskubidea oso gutxitan bermatzen den eskubidea da; aitzitik, sarritan ezinezkoa da eskubide hori baliatzea, merkatuak ezartzen dituen prezio altuek eragiten duten zailtasun ekonomikoaren erruz. Zailtasun hori bereziki areagotzen du bizi dugun kulturak, zeinean etxebizitzen eskariaren %95etik gora jabetzako etxebizitza izatekoa baita.

Administrazioek kontzientziazioaren bidez lan egiteko beharra eta betebeharra dute –askotan eztabaidatu dugu horri buruz–, baina batez ere alokairuzko etxebizitzen eskaintza handitu beharra dute, jabetzako etxebizitzaren aldean alokairuaren sistema bultzatzeko.

Abian jarri diren konpromisoak eta jarduketak helburu hori betetzetik oso urruti daude. Nafarroako Gobernuak Vinsaren bitartez sustatzen dituen alokairuzko etxebizitzen eskaintza urriari gehitzen zaizkio, harlauza gaindiezin baten gisa gehitu ere, etxebizitza horiek merkatura ateratzean enpresa publikoak darabiltzan prezio altuak.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskatzailearen errentari zuzenean eta nagusiki lotutako baremo bat aplika dezan, Vinsak nahiz beste edozein administrazio publikok sustatutako edo kudeatutako alokairuzko etxebizitzen prezioa ezartzean.

2. Alokairuaren prezioa ezartzeko baremoa ondoko taula aplikatzetik aterako da: eskatzailearen errentaren %15etik hasi –lanbide arteko gutxieneko soldatatik soldata horren halako bira bitartekoa dutenentzat– eta gisa horretako alokairua eskatzeko gehieneko errentaren %30era bitartekoa –non eta azken horrek ez duen lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 5 gainditzen–.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bidezubi berri bat eraiki dezan Isoko mendatearen hegoaldean, gaur egun Orradre-Napaleko bidegurutzean dagoen zubiaren ordez.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bidezubi berri bat eraiki dezan Isoko mendatearen hegoaldean, gaur egun Orradre-Napaleko bidegurutzean dagoen zubiaren ordez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluaren eta hurrengoen babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Isoko mendatearen iparraldeko ibilbide berria bukatuta eta abian dago, eta hortaz, Pirinioetako ibarretako biztanleek urtetan behin eta berriro erreklamatutako obrak bukatuta, gertuago dugu komunikabide moderno bat, ibar horietara garapena, zerbitzuak eta eskubideak hurbilduko dituena. Gertuago dago, baina oraindik egon ez dago.

Isoko mendateko hegoaldea ez da iparraldea bezain latza, baina hegoaldean ere badago puntu beltz bat, errepide horren guztiaren sailkapena bera ezartzen duena: Orradreko zubia.

Zubi hori inbutu bat da, eta trafikoa mugatzen du, trafiko pisua zailtzen du eta arrisku bat da denentzat.

Nafarroako Gobernuaren asmoa da zubi hori beste toki batean jartzea, baina hori egiteko moduak ez du aipaturiko arazo horietako bat bera konpontzen. Ulergaitza da ibilbide-zubi berriaren jarduketa planteatzea etorkizun-senik gabe eta bide moderno batek izan beharreko ezaugarri teknikorik gabe.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bide-zubi berri bat eraiki dezan Isoko mendatearen hegoaldean, gaur egun Orradre-Napaleko bidegurutzean dagoen zubiaren ordez.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezaugarri teknikoetan jaso dadin zubi horretara bi aldeetatik sartzeko bihurguneen zuzenketa, zubi hori bihurguneen sarbideraino aurreratuz.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan eta hausnarketa bat egin dezan eta Parlamentura igor dezan, hutsik dauden etxebizitza eraikiak babes ofizialeko etxebizitzen araudian sartzeari buruz.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan eta hausnarketa bat egin dezan eta Parlamentura igor dezan, hutsik dauden etxebizitza eraikiak babes ofizialeko etxebizitzen araudian sartzeari buruz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluaren eta hurrengoen babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Higiezinen espekulazioko urteen eta etxebizitza libreak masiboki eraikitzearen helburua ez zen etxebizitza horiek erabili eta betetzea, ezpada horien salmentarekin espekulatzea.

Higiezinen egungo krisiak burbuila hori zeharo haustea ekarri du, halako moduz non milaka etxebizitza dauden hutsik orain, eta espekulazio horri eustea ezinezkoa denez gero, horrek badu ondorio positibo bat: prezioen beherakada, zenbait kasutan babes ofizialeko etxebizitzen moduluetara hurbiltzeraino.

Horrenbeste etxebizitza hutsik egonik, eta administrazioek etxebizitza horiek merkatura ateratzeko eragin eta jardun dezaketenez, gure ustez posible eta komenigarria da eztabaidatzea gaur egun libreak diren etxebizitzen zati bat babeseko etxebizitza bihurtu ahal izateko jarduketei buruz.

Aukera hori baliatzen baldin bada, babes ofizialeko etxebizitza bat behar eta eskatzen duten pertsonen eskubide nagusia bermatu ahalko da, etxebizitzen eraikitze masibo eta etengabeak dakarren erokeria ekidinen duen jarduketa baten bidez, horrek ondorioak baititu lurraldearen okupazioari, iraunkortasunari, mugikortasunari eta abarri dagokienez.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean analisi eta hausnarketa bat egin eta Parlamentura ekar dezan, eraikita eta hutsik dauden etxebizitzak babes ofizialeko etxebizitza bihurtzeko aukerei buruz.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak eta negoziazioak egin ditzan Audenasarekin, Imarkoaingo bidesari-postua tokiz aldatzeko eta N-121 errepideko bidegurutzetik gorago jartzeko.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren zuzemenak eta negoziazioak egin ditzan Audenasarekin, Imarkoaingo bidesari-postua tokiz aldatzeko eta N-121 errepideko bidegurutzetik gorago jartzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluaren eta hurrengoen babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Noaindik Artederretara bitarteko N-121 errepideko zatia gure erkidegoko errepideetako puntu beltzetako bat da. Zati horretan hainbat elementu elkartzen dira: galtzada ez dago bikoiztuta, trafikobolumena handia da, trafiko pisua dabil, hiriguneak, industrialdeak eta abar daude, eta horrek segurtasun arazo handiko bideune bihurtzen du zati hori.

Etengabe planteatzen da saihesbideen bidezko soluzioei ekiteko aukera, esaterako Arrizabalagan, Beriainen eta abar. Obra horiek egiten zailak dira inondik ere, dagoen espazioa txikia delako, eta aukera garesti bezain alboragarriak dira.

Errepide zati horrekiko paralelo doa A-15 autobidea, arazo horiei behin betiko konponbidea emateko balia litekeena. Konponbide hori praktikan jartzeko eragozpen bakarra da bidesaria ordaindu behar dela eta ordainlekua Imarkoainen dagoela.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren zuzemenak eta negoziazioak egin ditzan Audenasarekin, Imarkoaingo ordainlekua tokiz aldatzeko, N-121 errepidearen eta Izarbeibarko sarbidearen arteko bidegurutzetik gorago hain zuzen ere, hartara saihesbide moduan erabili ahalko baita bideune hori guztia.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da material didaktiko osagarriaren doakotasuna berma dezan.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita material didaktiko osagarriaren doakotasuna berma dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

"Oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa da", eta, hortaz, ikasteko beharrezkoak diren materialek (testu liburuek eta material osagarriak) ez diete inolako kostu ekonomikorik ekarri behar ikasleari eta, horrenbestez, haien familiei.

Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea onetsi zenetik egiaztatu ahal izan da 30 eurotik 90 euro bitarte gastatu behar izan direla kasurik gehienetan material hori erosteko, legean ez baita jasotzen material didaktiko osagarriaren doakotasuna.

Nafarroa Bai parlamentu-taldearen ustez, ezinbestekoa da, material osagarri horiek erosteko egin beharreko gastua ikusita, doakoa izatea derrigorrezko hezkuntza zikloetan beharrezkoa den material hori guztia.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan doakoa izanen dela curriculum-materiala, prestatua dena ikasleek erabiltzeko, banaka eta ikasturteak irauten duen bitartean, eta, kasuan kasuko orientabide metodologikoen eta ebaluazio irizpideen arabera, curriculum-edukiak garatzen laguntzeko baliagarria dena.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

# Adierazpen instituzionala, Lan Duinaren aldeko Mundu Mailako Jardunaldiari buruzkoa.

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere babesa helarazten dio Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioak (CSI), zeinaren kide baitira sindikatu esanguratsuenak, urriaren 7rako deitu duen Lan Duinaren aldeko Mundu Mailako Jardunaldiari.

2. Espainiako Gobernuari eskatzen dio Lanerako Oinarrizko Arauekiko eta Lan Duinarekiko errespetua susta dezan, eta aktiboki jardun dezan milurtekoaren garapen helburuak lortze aldera.

3. Adierazpen hau igortzen die mintzakide sozialei, Lan eta Immigrazio gaietarako Ministerioari, Lanaren Nazioarteko Erakundeak Espainian duen bulegoari eta Europako Batzordeak eta Europako Parlamentuak Espainian dituen ordezkariei.

4. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du sindikatuek Lan Duinaren aldeko Mundu Mailako Jardunaldia dela-eta deituriko elkarretaratzeekin.”

Iruñean, 2008ko urriaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Julián Gayarre Nazioarteko Kantu Txapelketaren XXI. edizioaren bilakaeraren gainean duen iritziari buruzkoa.

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Julián Gayarre Nazioarteko Kantu Txapelketaren XXI. edizioaren bilakaeraren gainean duen iritziari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrásek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Azken asteotan Iruñeko Gayarre Antzokian Julián Gayarre Nazioarteko Kantu Txapelketaren XII. edizioa egin da. Txapelketa ongi ezagutzen duen Alberto Osácar ospetsuaren hitzetan –"Opera Actual"en berriemailea da Nafarroan–: "1986an, Nafarroako Gobernuak zorioneko ideia bat izan zuen: nazioarteko kantu txapelketa bat sortu eta hari Julián Gayarre izena ematea, hain zuzen. Garai hartan, "Romanza final" filmaren errodajea egiten ari ziren Nafarroan, José Carreras protagonista zuela, eta egoera horretaz baliatuz, tenore katalanari eskatu zitzaion txapelketako lehendakari izan zedin. Bi urtean behingo maiztasunarekin, edizio gutxiren buruan lortu zuen nazioarteko txapelketa lirikoen artean leku bat egitea; noski, bere lehendakariaren botere mediatikoak lagunduta (...). Egunotan, hamabigarren edizioa ospatzen ari da Iruñeko Gayarren. Nabarmena dirudi txapelketa hori azken edizioetan jendea biltzeko eta oihartzuna izateko ahalmena galduz joan dela".

Prentsa idatzia gainbegiratzen badugu, izenburuek ezin dute esplizituagoak izan: "Mucha luz y poco público" (Argi asko eta publiko gutxi); "Quince cantantes pasan a la segunda ronda" (Hamabost abeslari igaro dira bigarren txandara); "El nivel de los cantantes no fue suficiente para entregar los primeros premios, según el jurado" (Epaimahaiaren hitzetan, abeslarien maila ez zen lehen sariak banatzeko modukoa izan); "Trescientas cincuenta personas asistieron a la final" (Hirurehun eta berrogeita hamar pertsona joan ziren finalera).

Datu eta iritzi horiek direla-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Ahozko galderaren testua

Zer iritzi du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Julián Gayarre Nazioarteko Kantu Txapelketaren XII. edizioaren garapenari buruz? Zer ekimen jarriko ditu abian departamentuak txapelketari bultzada emateko?

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## Galdera, Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Txapelketari buruzkoa.

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Txapelketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrásek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Joan den 2007ko irailean, Iruñeko Gayarre Antzokian Pablo Sarasate Nazioarteko 9. Biolin Txapelketa egin zen. Hori dela eta, prentsak, epaimahaikideek eta Kultura Departamentuko taldeak aukera izan zuten azken edizioaren garapena ebaluatzeko eta aurreko zortzien balantzea egiteko.

Aurten, Nafarroako biolinista handiaren heriotzaren mendeurrena ospatzen dugun honetan, musika ekimen batzuk egin dira, eta zalantzarik gabe, haren bizitza eta obra gehiago ezagutzeko eta hobeto zabaltzeko lagundu dute.

Politika horri jarraipena ematen dion tresnetako bat Nazioarteko Biolin Txapelketa da, eta bere hamargarren edizioa 2009ko irailaren 15etik 22ra bitarte eginen da. Dataren izaera enblematikoa dela-eta, hamargarren edizioa eta mendeurrenaren ostean lehena izaki, komenigarria da ebaluazioa lasaitasunez eta denborarekin egitea, gauza positiboak finkatze eta aurreikusitako emaitza eman ez dutenak zuzentze aldera.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Txapelketaren bilakaeraren ebaluazio orokorra, nazio- eta nazioarte-mailan.

2.- 2007an eginiko 9. deialdiko saioaren balorazio zehatza.

3.- Zer ekimen jarriko ditu abian Kultura eta Turismo Departamentuak txapelketari bere hamargarren edizioan bultzada emateko?

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

---

## Galdera, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an "Net 21 Radio" eta "Radio Universidad de Navarra" irratiez eginiko txostenaren gaineko iritziari buruzkoa.

*JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an "Net 21 Radio" eta "Radio Universidad de Navarra" irratiez eginiko txostenaren gaineko iritziari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an emaniko txostenari buruz, zer balorazio egin du Nafarroako Gobernuak, Net 21 Radio eta Radio Universidad de Navarra irratiek beren esleipen baldintzak direla-eta egin dituzten irregulartasunei dagokienez, eta zer neurri hartu ditu horiek zuzentzeko?

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

---

## Galdera, Nafarroako Gobernuak eskaintza berrietarako aurreikusten duen babes ofizialeko etxebizitza kopuruari buruzkoa.

*TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak eskaintza berrietarako aurreikusten duen babes ofizialeko etxebizitza kopuruari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan. Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria:

Babes ofizialeko zenbat etxebizitza ateratzeko asmoa dauka departamentu horrek eskaintza berrietan? Noiz eta non eginen dira eta non kokatuko dira sustapen horiek?

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

---

## Galdera, oinarrizko errentak eta beste zenbait gizarte laguntzak Nafarroan duten egoerari buruzkoa.

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, oinarrizko errentak eta beste zenbait gizarte laguntzak Nafarroan duten egoerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galdera, oinarrizko errentak eta beste zenbait gizarte laguntzek Nafarroan duten egoerari buruzkoa.

• Zenbat oinarrizko errenta eskatu ziren 2007ko urtarriletik irailera, eta zenbat eskatu dira aurten denbora-tarte berean?

• Zein dira aurten hazkunde handiena izan duten laguntza sozialak? Zenbateko hazkundea izan dute?

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

---

## Galdera, Funes aldean Arga ibaira botatzen diren hondakinei buruzkoa.

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Funes aldean Arga ibaira botatzen diren hondakinei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Irailaren 17tik, milaka arrain hilda agertu dira Arga ibaiko Madre Vieja meandroan, Funes aldean. Biztanle batzuek ohartarazi zuten kiratsa eta aparra zegoela Las Mesicas izenaz ezagutzen den inguruan. Ez da eremu hori kutsatzen den lehen aldia. Gogorarazi beharra dago kaltetutako eremu hori Batasunaren Intereseko Lekuen (BIL) katalogoan dagoela.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al daki nor izan daitekeen Arga ibaira, Funesko aldean, eginiko isuriaren arduraduna?

2.- Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak egoera hori saihesteko?

3.- Kalte horri buruz eginiko akta eta txosten guztien kopia igortzea nahiko nuke.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

---

# Galdera, hiri segurtasunerako udalez gaindiko lehen planak ukitutako udalerrien jarduera, baliabide, erantzun eta parte-hartzeari buruzkoa.

*AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, hiri segurtasunerako udalez gaindiko lehen planak ukitutako udalerrien jarduera, baliabide, erantzun eta parte-hartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena

Aurtengo otsailean, abian jarri zen hiri segurtasunerako udalez gaindiko lehen plana, besteak beste, Ebro ardatzean kokaturiko udalerrietako segurtasun ezaren hazkundeari aurre egiteko. Ikusirik ordutik igarotako denbora, ondokoa jakin nahi dugu:

1.- Zer jarduketa egin dira plan horren babesean?

2.- Zer bitartekorekin (langileak, materialak eta abar) eta zer baldintzatan betetzen ari da plana?

3.- Zein da ukitutako udalerriek emaniko erantzuna eta planean duten parte-hartzea?

4.- Departamentuak datorren urterako jarduketarik aurreikusi badu, zein dira jarduketa horiek eta zer bitartekoren bidez eginen ditu?

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

---

# Galdera, asegururik gabe ibiltzen diren ibilgailuek eragindako istripuei eta Foruzaingoak horiek kontrolatzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa.

*AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, asegururik gabe ibiltzen diren ibilgailuek eragindako istripuei eta Foruzaingoak horiek kontrolatzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena

Aurtengo urtarrilean, asegururik gabeko ibilgailuek ehun istripu eragiten zituzten urtean, eta eragindako kalteen zenbatekoa esanguratsua zen. Gaur egungo egoera ekonomikoak familien ekonomiak uki ditzakeenez, gai honi dagokionez ondokoa jakin nahi dugu:

1.- Ezaugarri horietako zenbat istripu eragin dituzte asegururik gabeko ibilgailu horiek aurten? Zein da horien bilakaera?

2.- Zer jarduketa eta zer neurri aplikatzeko asmoa du Foruzaingoak asegururik gabeko ibilgailuen kontrolari dagokionez?

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

---

# Galdera, Gobernuak hartu dituen edo hartuko dituen neurriei buruzkoa, Nafarroako Ikus-entzunezko Kontseiluak Net-21 eta Universidad de Navarra irratien funtzionamenduan atzemandako irregulartasunak direla eta.

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuak hartu dituen edo hartuko dituen neurriei buruzkoa, Nafarroako Ikus-entzunezko Kontseiluak Net-21 eta Universidad de Navarra irratien funtzionamenduan atzemandako irregulartasunak direla eta.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 1140/2005 zenbakiko epaiaren bitartez, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren uztailaren 15eko 2343/1998 Foru Agindua deuseztatu zuen zuzenbidearen araberakoa ez izateagatik; foru agindu haren bitartez, irrati lizentzia bana esleitu zitzaizkien Universidad de Navarrari eta Medios de Comunicación 21-ri.

Epai hartan, administrazio espedientea atzera eragitea agindu zen, kontratazio mahaiak modu osoan eta zehatzean balora eta puntua zitzan lehiaketa publikoan aurkezturiko eskaintzak. Auzitegiak epai hartan bertan ezarri zuen ez zegoela epaiaren aurkako errekurtsoa jartzerik. Hortaz, epaia irmoa zen.

2006an, Nafarroako Gobernuak berriz esleitu zizkien Nafarroako Unibertsitateari eta Medios de Comunicación 21 enpresari Iruñeko bi irrati lizentziak.

Parlamentuan berrikitan eginiko agerraldian Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko lehendakariak adierazi duenez, esleipen horietako bat “ez da inondik ere egokitzen ez emakidaren baldintzei ez legediari ere... eta ez du baimenik, emititzen ari dena emititzeko”, “irregulartasuna agerikoa da” eta “ez-betetze horiek konpontzea Nafarroako Gobernuari ez beste inori dagokio”.

Agerraldi berean, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko lehendakariak adierazi zuen txosten bat igorri zuela Net-21 eta Universidad de Navarra irratien funtzionamenduan atzemandako irregulartasunak direla eta.

Galdera

Zer neurri hartu ditu, edo hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak atzemandako irregulartasunen aurrean?

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

---

## Galdera, jakiteko zenbat enpresa sortu diren 2005, 2006 eta 2007. urteetan, zenbat lanpostu sortu diren, zein jarduera-sektoretan jarduten duten eta non dauden.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zenbat enpresa sortu diren 2005, 2006 eta 2007. urteetan, zenbat lanpostu sortu diren, zein jarduera-sektoretan jarduten duten eta non dauden.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Jakin nahi dugu zenbat enpresa sortu diren 2005, 2006 eta 2007. urteetan, zenbat lanpostu sortu dituen horietariko bakoitzak, zein jarduera-sektoretan jarduten duten eta non dauden.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: José Angel Agirrebengoa Imaz

---

# Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008rako aurrekontuetan, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.-. Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

00100-010001-6020-921100. Erakunde eraikinetako obrak.

00100-010001-6056-921100. Ondasun artistikoak zaharberritzea.

04300-020002-1620-231800. Erabilera bereziko osasun asistentzia.

03200-040001-2269-921300. Ebaluatzeko foru batzordeari laguntza.

02920-050005-6091-132200. Bide segurtasuneko foru plana (azterlanak eta proiektuak).

02720-054000-2285-134200. Suhiltzaileen ekipamendua eta jantziak.

02720-054000-6021-134200. Suhiltzaile-etxeetako obrak.

02710-54001-7819-134100. Hitzarmenak eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin.

06000-060000-4819-111200. Terrorismoaren biktimei laguntzeko jarduera pribatuak egiteko dirulaguntzak.

05100-070001-6091-467902. Foru administrazioa modernizatzeko plana.

2.- Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008rako aurrekontuetan, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.-. Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

11200-113003-2276-493300. Enpresek eginiko lanak.

11300-114000-6031-923100 . Azpiegituren kudeaketa.

11300-114002-6020-923100. Instalazio berriko eraikuntza eta obrak, ondare higiezina birmoldatzea eta janztea.

13200-124001-4709-146100 . Nazioarteko proiekzioa duten jarduerak babestea.

16210-142000-2276-923302. Estatistika ekonomikoak.

16210-142000-2276-923303. Estatistika demografikoak, sozialak eta ingurumenekoak.

16210-142000-2276-923304. Etxeetara eginiko inkestak.

17400-150000-2276-923400. Fiskalitateari buruzko lanak eta azterlanak.

17400-150000-2279-923400. Hirugarrenek eginiko bestelako lanak.

17330-151000-2273-467900. Tributuen arloko informazio sistemetan datu fiskalak jaso eta sartzeko zerbitzuak.

17222-154002-6090-467902. Merkatuko inkestak eta azterlanak.

17144-155003-3501-932100. Zergen eta okerreko tributuen dirusarreren itzulketaren berandutzagatiko interesak.

2.- Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, Toki Administrazioko Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Toki Administrazioko Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008rako aurrekontuetan, Toki Administrazio Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.-. Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

21000-211000-2269-922400. Toki administrazioarekin zerikusia duten jardueretan parte hartzea.

21000-211000-2276-922400. Nafarroako toki administrazioaren plangintza estrategikorako azterlanak.

21500-211001-4609-467900. Kalitate eta modernizazio plana.

21500-211001-4609-467906. Nafarroako udalak informatzeko sistema hedatzeko plana.

21400-211002-4609-456200. Nafarroako hiri hondakin solidoak tratatzeko partzuergoa abian jartzeko laguntza.

21400-211002-7609-456200. Nafarroako hirihondakin solidoak tratatzeko Partzuergoa ezartzera bideraturiko laguntza.

21400-211002-7609-942400. Toki entitateen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena.

21300-211003-7609-261602. Oztopo arkitektonikoak kentzea.

21300-211003-7609-313900. Udal igerilekuak arauetara egokitzea.

2.- Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, Hezkuntza Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008rako aurrekontuetan, Hezkuntza Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.-. Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

41100-410000-2276-325100. Zentro publikoen eraikuntza-egoera baloratzeko azterlanak.

41810-410001-6020-325100. Ikastetxe berriak eraikitzea eta ikastetxeak egokitzeko lanak.

41810410001-6020-325103. Musika kontserbatorioa.

41810-410001-7609-325100. Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak.

41810-410001-7609-325100. Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak.

41810-410001-7609-325102. Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurren eskolatze lanetarako.

41810-410001-7609-325103. Eraikin berriak egitea eta egokitze-lanak.

41810-410001-6020-325100. Ikastetxeak mantentzeko lanak.

41500-410002-6081-321100. Testuliburuen doakotasunari buruzko plana.

41300-411001-2276-321100. Ikastetxeen, programen eta hezkuntza sistemaren ebaluazioa.

41300-411001-2276-321105. Ikasleen ebaluazioa.

42420-421000-4400-322900. “Centro Navarro de autoaprendizaje de idiomas” enpresaren funtzionamendua.

42400-421001-2266-322900. Euskarazko prestakuntza irakasleentzat.

42400-421001-2269-322900. Euskararen erabilerarako programak.

42400-421001-2269-322902. Euskara sustatzeko jarduerak.

42400-421001-2269-322903. Euskarazko hezkuntza-materiala prestatzea.

42400-421001-4809-322900. Euskara sustatzeko bekak eta laguntzak.

42120-422000-2269-321200. Hezkuntzako berrikuntza programa.

42120-422000-2269-322DOO. Ikastetxe publikoetan eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea.

42230-423003-2269-322000. Etorkinak nahiz gutxiengo soziokulturalak gizartean eta eskolan integratzeko jardueren finantzaketa.

42310-425000-2266-321200. Irakasleentzako heziketa jarduerak.

42340-425001-6060-322A04. Informazioaren gizartearen garapena ikastetxeetan.

43010-430001-4816-322500. Nafarroako Antzerki Eskola.

43300-433000-2266-321200. Lanbide heziketako irakasleen hobekuntza eta eguneratzea.

43300-433000-2269-321200. Lanbide heziketarekin zerikusia duten materialak argitaratzea.

43300-433000-2269-322EOO. Lanbide Heziketaren garapena eta berrikuntza.

43300-433000-4800-322E02. Enpresetan praktikak egiten ari diren ikasleei laguntzak.

43300-433000-6059-325100. Lanbide heziketako ikastetxe publikoetako ekipamendua.

44100-440001-4609-334100. Udal eta kontzejuentzako laguntzen programa euskararen arloan.

44100-440001-4819-332900. Gau-eskolentzako dirulaguntza.

44100-440001-4819-334100. "Euskara gizarte komunikabideetan" gaiaren inguruko programa.

44100-440001-4819-334102. Euskarazko ekimen kulturalak sustatzea.

44100-440001-4819-334103. Euskara sustatzea informazioaren eta komunikazioaren teknologietan.

2.- Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

# Galdera, Osasun Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008rako aurrekontuetan, Osasun Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.-. Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

51120-511002-4819-313900. Osasun programetarako laguntzak.

51310-512001-2266-311200. Osasun arloko etengabeko prestakuntza.

51310-512001-4809-311200. Ikasketak zabaltzeko bekak.

51310-512001-4809-311203. Bilera zientifikoak egiteko laguntzak.

51310-512002-6092-465102. Ikerketa proiektuak lehentasunezko alorretan.

53000-514000-2269-313902. Nafarroako lan osasunari buruzko plana.

53000-514000-6020-313900. Obrak.

52000-540000-6060-312800. Inbertsioak informazio sistemetan.

52002-541002-6020-312802. Eraberritze lanak.

52205-541006-2279-311100. Osasun larrialdietarako eta anbulantzietarako laguntza plana.

52002-541002-2120-312300. Etxeak eta eraikinak konpondu, mantendu eta zaintzea.

52240-543000-2120-312300. Eraikinak konpondu, mantendu eta zaintzea.

52240-543000-6020-312802. Eraberritze lanak.

52240-543000-6057-312802. Berritzeko ekipamendua.

52250-544000-6020-312802. Berrikuntza lanak.

52400-545000-2120-312300. Etxeak eta eraikinak konpondu, mantendu eta zaintzea.

52400-545000-6020-312802. Eraberritze lanak.

52370-547002-2269-313100. Medikamenduen erabileraren arrazionalizaziorako plana.

52280-548000-2262-313900. Publizitatea eta propaganda: osasunaren babesa eta heziketa.

52280-548000-6057-313900. Berritze teknologikoa.

52280-548000-6057-313900. Publizitate eta propaganda kanpainak.

2.- Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

# Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008rako aurrekontuetan, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.-. Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

61310-610000-6091-453200. Azterlanak eta proiektuak.

61320-610002-6092-456300. Azterketa geologikoak, hidrogeologikoak eta geoteknikoak.

61100-620001-6010-453206. Tokiko sarea.

61100-620001-6091-453200. Eraikuntzako segurtasuna: azterketak eta jarraipena.

61210-621001-6010-453300. Zoruak, sare nagusia eta tokiko sarea sendotzea eta berregokitzea.

61210-621001-6010-453303. Bide segurtasuna: seinaleztatzea eta balizatzea.

61210-621001-6010-453304. Zeharbideak eta hitzarmenak.

61210-621001-6010-453305. Errepide sarea eta kontrol zentroa kontserbatzea.

61210-621001-6010-453306. Motor eta bizikletentzako segurtasun hesiak egokitzea.

2.- Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

## Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008rako aurrekontuetan, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.-. Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

71430-700001-2276-468102. Nekazaritza arloko natur baliabideei buruzko azterlanak.

71430-700001-2276-468103. Nekazaritza-ikerketako proiektuak.

71430 -700001 -2276 -468104. Azterlanak, inkestak eta estatistikazko bestelako lanak.

72140-720002-7609-456602. Herrilurren defentsa egin eta mugak ezartzea.

74100-740001-2276-456200. Azterketa eta lan teknikoak.

74100-740001-7709-456900. Kutsaduraren prebentzioa eta zuzentzea.

74200-740002-2129-456300. Naturguneak mantentzea.

74200-740002-4819-456200. Ingurumen hezkuntzako programetarako dirulaguntzak.

74200-740002-6019-456502. Suntsitutako baso masak berregokitzeko jarduerak.

74300-740003-6019-452100. Ibaiertzak lehengoratzea eta ekosistemak babestea.

74300-740003-6092-452102. Azterlanak eta proiektuak.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

# Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008rako aurrekontuetan, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.-. Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

91400-900001-2276-231000. Gizarte zerbitzuen arloko ikerlan eta hitzarmenak.

91820-920004-6020-231300. Inbertsioak ezgaituentzako zentro berekietan.

91820-920004-6020-231700. Inbertsioak haur eta gazteentzako zentro berekietan.

91820-920004-6059-231300. Altzairuak eta ekipoak ezgaituentzako zentro berekietan.

94000-930001-2269-232200. Aukera berdintasunaren plana garatzea eta plan horretako jarduketak.

95400-940001-6021-336100 Eraikin eta obra propioak.

95400-940001-7609-336100. Toki entitateetako kirol instalazioak.

92210-950001-4819-231506. “Haur-etxeak” eta adiskidetzeko bestelako proiektuak.

92410-95100 1-4819-492300. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako jarduerak.

96100-960001-6021-232100. Eraikin eta obra propioak.

96100-960001-7609-232102. Gazteentzako instalazioak toki entitateetan.

2.- Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008rako aurrekontuetan, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuan, zenbait kontusail daude.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.-. Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

A1110-A10001-6021-432300. Inbertsio eta azpiegitura turistikoak.

A1110-A10001-6055-432300. Nafarroan seinaleztapen turistikoa jartzeko plana.

A1120-A10001-4609-4.32303. Pirinioen plana.

A1120-A10001-7709-432306. Establezimenduak eraberritzea eta sortzea.

A1200-A10001-2262-432102. Turismo sustapena.

A2010-A20000-2400-334202. Arteak bultzatu eta sustatzeko jarduerak.

A2110-A20001-6021-337100. Nafarroako Gobernuaren monumentuak zaintzea, zaharberritzea eta egokitzea.

A2110-A20001-7609-337100. Udal eraikinak zaharberritzea.

A2110-A20001-7819-337100. Eraikin historiko-artistikoen zaharberritzea eta babesa.

A2120-A20001-7819-337103. Aztarnategien Museoa.

A2500-A20002-4609-335103. Arte eszenikoen sustapena.

A2500-A20002-4809-335200. Zine sorkuntzarako laguntzak.

A2500-A20002-7609-334100. Kultur etxeak eta bestelakoak eraiki eta ekipatzea.

A2420-A21 001-6054-332200. Liburutegi publikoetarako ekipamendua.

A2420-A21 001-6081-332200. Liburutegi publikoen sarerako funtsak erostea.

A2420-A21001-7609-332202. Liburutegi publikoak eraikitzeko laguntzak.

A2420-A21001-7609-332203. Liburutegi publikoak altzariz hornitzeko laguntzak.

2.- Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## Galdera, Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008rako aurrekontuetan, Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.-. Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

B1100-810001-2276-921500. Komunikabideei eta ikus-entzunezkoen araudiari buruzko azterlanak.

B1130-810002-4709-467900. Ikus-entzunezkoen produkziorako laguntza.

B1120-810003-2262-921504. Aireko garraioetako publizitate instituzionala.

B1120-810003-2262-921505. Nafarroako produktuak bultzatu eta sustatzeko ekintzak.

B2100-820000-4609-921100. Udalentzako laguntzak sustapenerako ekintzetarako.

B3000-830000-2269-921100. Beste gastu batzuk

B0200-840000-2262-131102. Sentsibilizazio kanpaina.

2.- Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

# HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* ..............................................................................................................................

*Helbidea* ......................................................................................................................................

*Telefonoa* ............................................................... *Hiria* ......................................................................

*P. K.* ............................................................... *Probintzia* ......................................................................

---

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA
ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urtebete | 47,00 | euro |
| Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko | 1,25 | » |
| Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko | 1,40 | » |

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
**NAFARROAKO PARLAMENTUA**
«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Navas de Tolosa, 1
31002 IRUÑA

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, SL (Lizarra).
Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua